

# ikastola



**.EUS DOMEINUA**  
**ARABA EUSKARAZ LAUTADA IKASTOLAN**

**MARKEL OLANOREKIN SOLASEAN**  
**EUSKARA BERE HERRIAN LEGEZKOA**

**ABUSU IKASTOLA, BILBOKO**  
**LA PEÑA AUZOAN**



**TAKOIEEN ORDEZ**  
**TAKOAK**





Erreferentziako  
txartela:

Finantza-txartelen  
erraztasun  
guztiekin eta  
gainera...

**Bidaia-  
asistentziako  
doako aseguru**

abantailak era  
guztietako 2.000  
establezimendutan.

Deskontuak  
mundu osoan  
izateko giltza.

Kontsultatu  
**BBK26 gida,**  
**www.bbk.es**

orrian



- 3 ELKARRIZKETA: MARKEL OLANO<sup>REKIN</sup>, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN DIPUTATU NAGUSIA, SOLASEAN
- 8 ARABA EUSKARAZ 2010 LAUTADA IKASTOLAN
- 10 ABUSU IKASTOLA, BILBOKO LA PEÑA AUZOAN. SUKALDEA JOLASTOKI?
- 12 ARIZMENDI IKASTOLAKO KULTURGUNEA. / ORIOKO HERRI IKASTOLAREN ERAIKIN BERRIA
- 16 EUSKARA BERE HERRIAN LEGEZKO IZAN DADIN
- 18 IKASTOLA BERRIA EGINGO DUTE TAFALLAN
- 16 ERREPORTAJEA: PUNTUEUS-I ATXIKIMENDUAK EMATEKO AUKERA DURANGOKO AZOKAN

EDITATZAILA:  
IKASTOLEN KONFEDERAZIOA  
Zamudioko Teknologia  
Elkartegia, 208 B-1  
48170 ZAMUDIO  
Tel.: 606 33 41 45

KOORDINATZAILA:  
Zurire Mendizabal  
aldizkaria@ehik.ikastola.net

ERREDAKZIOA:  
Joxean Agirre eta  
Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILA:  
Imanol Artola

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Txema Garzia Urbina

INPRIMATZAILA:  
GERTU Inprimategia.  
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

ISBN:  
Ikastolen Konfederazioa,  
84/933872/6/6

AZAROA 2009

IKASTOLA ALDIZKARIA  www.ikastola.net

ELKARRIZKETA 

# Markel OLANO

Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
diputatu nagusia

“Ikastoletan konpromisoari  
esplizituki eutsi nahi izan zaio”



**Aurten Gipuzkoako Foru Aldundiaren urrezko domina 60. hamarkadan Gipuzkoako ikastolen sortzaileak izan ziren andereñoentzat izango da. Aitortza-ekitaldia abenduaren 16an izango da, Aldundiaren egoitza nagusian. Ebazpen hau dela eta, lurralde honetako gobernu agintaritzak azalpen-ohar bat zabaldu zuen irailaren 29an, zeinetan adierazten den instituzio publiko batek ikastolen alde inoiz egin duen aitortzarik borobilena. Hau dela eta diputatu nagusia den Markel Olanorengana jo dugu, erabakiaren aztarnak ezagutzeko. Beasaingoa da. Hango ikastolaren sorreran bete-betea hartu zuen parte bere familiak. Eskolaratze-garai osoa ikastolan egin zuen. Harro dago jasotako esperientziaz.**

**A**urtengo urrezko domina, zergatik andereño aitazindariei? **MARKEL OLANO:** Hirurogeigarren hamarkadako andereñoek ematen diegun aitortza hau da, alde batetik, pertsona batzuek hartutako konpromisoari, baina baita ere garai bati.

**Garai bati?** Bai. Hamarkada hartan gure gizarteak, euskal gizarteak, une larriak bizi izan zituen. Ez ahaztu diktadura garaia zela. Ikusten da herri honek garai hartan bizi zuen egoera larri hartan ezinbestekoa zuela inplikazioa, eta hor sortu zen ikaragarriko mugimendu kolektiboa. Eraldaketa ekarri zuen belaunaldia izan zen ordukoa. Iaz Mikel Laboari eskaini genion aitortza... garai hartako sorkuntza jarrera, eta konpromisorako jarrera txalotzeko. Antzeko balioak hartu ditugu orain andereñoekin. Baldintza gaizto haietan konprometitzeko eta sortzeko kemena eta gaitasuna izan zutelako.

**Hortaz, eredugarritzat hartzen duzue orduan gertatutakoa?** Zalantzarik gabe, eredugarria izan zen ordukoen konpromisoa. Gauzak ezin ditugu mimetismoz egin. Baina asko daukagu ikasteko

belaunaldi hartatik. Beraz, bilatzen duguna ez da bakarrik memoria gordetzea, baizik eta nola edo hala eredu hura gaurkotzea eta aplikatzea gure errealitatera.

**Eta orduko hartatik zer errekuperatu nahi zenuke gaurkora?** Garai hartan jakin zuten egon zitezkeen desberdintasunak gainditzen, izan hauek sozialak, politikoak eta beste gainontzeko ikuspegiak. Gizarte oso bat irakiten zegoen. Bazegoen subjektu kolektibo baten partaide izatearen sentsazio bat. Horri lotzen zaio inplikazio bat. Ikusten da herri honek bizi izan zuen egoera larri horretan ezinbestekoa zuela inplikazioa. Oso jende anitzak izan zuen ahalmena elkarlan bat abian jartzeko helburu baten atzetik. Elkarlan bat osatzen asmatu zuten. Orduan katarsi bat bezala izan zen, eta gaur egun zaila egiten zaigu giro hura berriro ere barneratzea.

**Eta hala ere uste duzu barneratu beharko genukeela.** Herri honetan sinesten dugunok eta herri honen etorkizunean sinesten dugunok behar ditugu gaur egun etorkizunera begira, beste garai batzuetan egin den bezala, hainbat oinarri

ezarri. Eta horretarako ezinbestekoa da gure gizartean konpromiso bat sustatzea, benetan gure herri honek aurrera egin dezan.

**Elkarlan bat, helburu baten atzetik, esan duzu. Zein zen helburu hori?** Gerra aurreko euskal lurraldiaren ondoren, euskal nortasuna gainbehera batean zegoen eta egoera horri buelta eman zioten, irauli egin zuten. Kanean ez zeuden zenbait ideia, etxeko txokoan zeudenak, handik atera egin ziren; *jaldi badi plazarako* mugimendu bat izan zen.

**Garai hartako ekarpen zehatzei dagokienean, zeintzuk nabarmenduko zenituzke?** Funtsean bi urrats nagusi eman ziren, Aldundian erabakia hartzeraren eraman gaituztenen artean. Alde batetik hizkuntzaren, euskararen, batasuna, eta bestetik juxtu hori, ikastolen eta euskal hezkuntzaren sorrera. Kolektiboki jarri zen behin betiko urrats bat. Sistema oso bat jarri zen abian. Hobeto esateko, sistema baterako oinarri sendoak jarri ziren.

**Ikastolez ikuspegi ona nabarmentzen zaizu.** Jakina, eta hala ere puntualizazio bat egin beharrean nago. Garai hartako andereñoek ari gare-

“IKUSTEN DA HERRI  
HONEK BIZI IZAN ZUEN  
EGOERA LARRI  
HORRETAN EZINBESTEKOA  
ZUELA INPLIKAZIOA. OSO  
JENDE ANITZAK IZAN ZUEN  
AHALMENA ELKARLAN BAT  
ABIAN JARTZEKO HELBURU  
BATEN ATZETIK. ELKARLAN  
BAT OSATZEN ASMATU  
ZUTEN. ORDUAN KATARSI  
BAT BEZALA IZAN ZEN,  
ETA GAUR EGUN ZAILA  
EGITEN ZAIGU GIRO  
HURA BERRIRO ERE  
BARNERATZEA.”

MARKEL OLANO BEASAINDARRA DA. BERTAKO IKASTOLAREN SORBERAN INPLIKATU ZEN  
BETE-BETEAN BERE FAMILIA: IZEBEA ISABEL OLANO, IKASTOLAKO LEHEN ANDERENOA IZAN  
ZEN. BESTE IZEBEA BAT, AMAIA ARRESE, ERE BERTAKO ANDERENOA IZAN DA.

nean, inork ezin du orduko belaunaldiaren ondarea bereganatu modu esklusiboan, zeren eta garai hartan andereño izan ziren zentro horietako bakoitzak ibilbide propioa egin zuen. Beraz, enfoketuek anitza izan behar du.

**Eta hala ere...** Hori da. Aurrekoa esan ondoren argi dago gizarte honetan profesionalizazioak lekua hartu diola konpromisoari. Eta hala ere ikastoletan konpromisoari esplizitoki eutsi nahi izan zaio. Ez daukat ezer, noski, profesionalizazioaren aurka. Alderantziz. Profesionalizazioa ezinbestekoa da eraginkorra izateko, baina konpromisoa ahaztu gabe. Seaskako eta Nafarroako ikastolak aipatuko ditut bereziki gaur egun, baina oro har nik argi daukat konpromisoa ikastoletan mantendu nahi izan dela; kultura bat, erro batzuk, mantendu nahi izan direla.

**Izan ere, zu ikastolan bezitakoa zara.** Nire amak esaten zuen ikastolara sartzen zirela haurrak atetik eta hiru urterekin. Ni bi urterekin sartu nintzen eta leihotik. Andereñoek barrutik hots egin eta leihotik sartu ninduten ikastola barrura.

**Familia oso lotua zeneukan ikastolarekin.** Alde gutzietatik. Ama eta aita guraso bezala inplikatu ziren. Guk altzari-denda bat geneukan Beasainen. Dendaren atzealdean egiten ziren ikastola sortzeko eta ondorengo bilerak. Izeba Isabel, Isabel Olano, Beasaingo ikastolako lehenengo andereñoa izan zen. Beste izeba bat ere, Amaia, Amaia Arrese, ikastolako beste fase batean, andereño izan zen. Etxean oso-oso gertutik bizi izan genuen mugimendu hura.



**“NIK EUSKARAZ IKASIDUT, ETA ERREGISTRO ABERATSAGOA DAUKAT NIRE HIZKUNTZAN. HORI BAKARRIK BEREZ BALIO ERANTSIA IRUDITZEN ZAIT. BAINA GAINERA NIK EZ DUT ESKOLATIK TRAUMARIK EKARRI, NIRE EZAGUN BATZUK BEZALA.”**

**Zein iritzi daukazu ikastolako esperientzia pertsonalaz eta jaso zenuen formakuntzaz?** Ikastolan izan ez diren nire lagunak hartzen ditut erreferentzia modura eta ikusten dut haietako batzuek euskara galdu egin zutela eskolan. Nik euskaraz ikasi dut, eta erregistro aberatsagoa daukat nire hizkuntzan. Hori bakarrik berez balio erantsia iruditzen zait. Baina gainera nik ez dut eskolatik traumarik ekarri, nire ezagun batzuk bezala. Afektibitatez inguratuta bizi izan naiz, eta hala gogoratzen dut ikastolako ibilbidea. Disziplina bazegoen, baina ez zigorrik. Errespetua zegoen andereñoarekiko, eta ez autoritarismorik euren aldetik. Horrela hezi izanak eragin izan dit pertsona bezala. Ikastolan izan ez ziren lagunekin konparatzen dut, eta diferentziak nabarmenak dira. **ik2**

**IKASTOLAK BI ZUTABE NAGUSI IZAN ZITUEN:** BATETIK, gurasoak, seme-alabentzat euskal hezkuntza

ziurtatzeko abenturari aurre egiteko prest zeudenak; eta, BESTETIK, irakasleak, euskarazko irakaskuntza garatzeko atxikimendu ikaragarriaz, baina lan egoera oso larrian zeudenak. • Euskal nortasuna berreskuratzeko lanaren oinarri sendoenetako bat izan zen ikastolen mugimendua, XX. mendearen azken berrogeita hamar urteetan. Euskararen batasunarekin batera, ikastolak indar eragile ezinbestekoa izan ziren, hizkuntza eta herrigintza ikuspegi bat berreskuratzeko. • Era berean, hastapenetatik ikastolak hezibide berritzaileetan barrena abiatu ziren, munduari zabalik, pedagogia ikuspegi aurreratuak aintzat harturik, euskal gizartearen modernizazio indar handi bat eraginez. Gizartearekiko atxikimendua, askatasuna eta Euskal Herriaren izatea oinarritzko balioak izan ziren ikastolen hezkuntza proiektuan. •

**MEDALLA DE ORO PARA LAS PRIMERAS ANDEREÑOS**

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha concedido la medalla de oro del territorio este año a las andereños precursoras de la década de los sesenta del pasado siglo. En la nota explicativa sobre la decisión adoptada se recoge un reconocimiento a las ikastolas en términos que hasta ahora ninguna entidad pública ha realizado. *“El movimiento de ikastolas ha sido una*

*de las columnas básicas de la recuperación de la identidad vasca en la segunda mitad del siglo XX”, señala el escrito. El presidente de la Diputación guipuzcoana, Markel Olano, ex-alumno de la ikastola de Beasain, ensalza el compromiso de las andereños precursoras e indica que “en las ikastolas se ha mantenido permanentemente el valor del compromiso”.*

**MÉDAILLE D'OR POUR LES PREMIÈRES ANDEREÑO**

La Diputation Forale de Gipuzkoa a décerné cette année la médaille d'or aux premières andereño des années 1960. La note explicative relative à l'adoption de la décision laisse apparaître une reconnaissance des ikastola dans des termes jamais utilisés par une entité publique jusqu'à présent: *“Le mouvement des ikastola a été un pilier essentiel*

*dans la ré-appropriation de l'identité basque dans la seconde partie du XXème siècle”.* Le président de la Diputation Markel Olano, ancien élève de l'ikastola de Beasain, a loué l'engagement des premières andereño et indiqué que *“l'engagement est une caractéristique omniprésente des ikastola depuis le début”.*

berritzaileak gara:  
ikasteko metodologia  
propioa, gradu  
titulazio berriak...

eta Europako  
espaziora  
egokitzen lehenak

**ZATOZ GURE  
UNIBERTSITATERA!**



**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

- > Mekanikako Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería Mecánica*
- > Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería en Diseño industrial y Desarrollo De Producto*
- > Industria Antolakuntzako Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería en Organización Industrial*
- > Industria Elektronikako Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería en Electrónica Industrial*
- > Informatikako Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería en Informática*
- > Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzan Gradua  
*Ingeniería en Sistemas de Telecomunicación*

**ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

- > Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradua  
*Administración y Dirección de Empresas*
- > Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan Gradua  
*Liderazgo Emprendedor e Innovación*

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

- > Ikus-entzunezko Komunikazioan Gradua  
*Comunicación Audiovisual*
- > Haur Hezkuntzan Gradua  
*Educación Infantil*
- > Lehen Hezkuntzan Gradua  
*Educación Primaria*

araba:

# AURTEN ABIATU DA DENON LAGUNTZA BEHAR DUEN LAUTADA IKASTOLA AGURAINEN

Eta datorren urteko Araba Euskaraz  
prestatzen hasi da

“GOGO BIZIZ” da Aguraingo Lautada ikastola jaió berriak datorren urteko Araba Euskarazerako aukeratu duen leloa, gogo biziz hasi baitu ikastola bezala egingo duen ibilbideko lehen ikasturtea. Mojen ikastetxea zen, baina adinean aurrera zihoazen eta gurasoei eskaini zieten eraikina erosteko aukera. Maite Ortega zuzendariarekin mintzatu gara.



araba  
euskaraz  
gogo biziz  
agurain 2010/06/20







**B**adira 25 urte Agurainen azken Araba Euskaraz egin zela. Bertako ikastola sare publikoan sartu zen, eta hamabost urte geroago, ikastola berri bat jarri da martxan: Lautada Ikastola. Ikastola hau izango da datorren urtean Araba Euskaraz antolatuko duena. Ikastola berria martxan jartzeaz gain Arabako ikastolen festa antolatzeak emango die burukomunik guraso eta irakasleei, baina gogo biziz hasi dira lanean.

*“Nik neuk, egia esan, oraindik nahikoa lan badut ikasturtea antolatzen eta ez dut Araba Euskaraz antolaketan behar edo nahi beste murgiltzeko astirik izan, baina sartuko naiz buru-belarri. Jakin badakigu horrek lana bikoiztu egingo digula, baina gogatsu gaude. Niretzat zuzendari lana erabat berria da eta inguruko ikastoletako zuzendari laguntza eske joan natzate: dudarik gabe haien laguntza behar beharrezkoa da guretzat. Seguru gaude denon artean proiektu hau aurrera*

*aterako dugula, baina hasierak beti ere gogorak izaten dira”,* hasi zitzaigun Maite Ortega. Mahai gainean hamaika txosten eta paper pilaturik zituen gero argazkietarako, kendu egin bazituen ere.

La 300 familiak zituzten seme-alabak Aguraingo Mariaren Bihotza ikastetxean. Bertako jabeak mojak ziren, eta adinagatik lanean ezin zutela jarraitzerik ez zuten, irakasleei eman zieten ikastetxeaz jabetzeko aukera lehenik, eta gurasoen ondoren. Mila bilera eta azterketa egin ondoren, Ikastolen Elkartearen sartzearabaki zuten. Hori da, hitz gutxitan esanda, Lautada Ikastolaren sorrerako

historia. Erlojuaren kontrako lasterketa izan zen prozesua. Irailaren 20an egin genuen gurasoen lehen bilera, eta abenduaren azkenera bitartean, hiru hilabete eskasetan, lortu zuten ikastetxea gurasoen eskuetara pasatzea.

Azken urteetan ez da askorik inbertitu ez eraikuntzan ezta azpiegituran ere. Premia handia dago eta inbertsioa oso handia izan da; horregatik ekainean egingo

**“Azken urteotan ez da askorik inbertitu ez eraikuntzan ezta azpiegituran ere. Premia handia dago eta inbertsioa oso handia izan da. Horregatik ere Araba Euskaraz antolatuko dugu ekainean.”**

den Araba Euskaraz utziko duen dirua proiektua aurrera ateratzeko beharrei aurre egiten laguntzeko erabiliko da. *“Oraingoz bi urteko gelan eta HHko lehen mailan hasi gara D ereduarekin lanean. Gurasoek aldaketa bat-batean nahi zuten, baina pausoak poliki-poliki emateko gomendatu digute. D eredu ezartzeko plangintza oso bat dugu martxan, eta emaitzak laster batean ikusiko ditugulakoan gaude. Bestalde, funtzionatzeko metodoa, irakaskuntza metodoa eta beste hainbat gauza aldatu ditugu ikasturte honetan.*

*DBHn ia denak berriak gara. Irakasle gehienak gazteak dira eta oso erraz egokitu dira ikastolen eredura”,* jarraitu zen Maite Ortegak.

270 ikasle ditu Lautada Ikastolak bi urtekoetatik hasi eta

DBHkoak barne. *“Ikastetxe honetan etorkinen ume asko izan ditugu. DBH1ean hogeitaz bederatzetorokinak dira, esaterako. Etorkinak, bertakoak, integrazioa, hezkuntza integral proiektua gauzatze bidean, dudarik gabe, goi mailako erronka da. Ikusten duzuen hiru guztia kudeatzea ez da erraza, baina gogo biziz ari gara lanean, irtenbideak topatzeko ahaleginetan”,* gogoratu zuen Maitek.

Datorren urtean egingo den Araba Euskaraz helburu ekonomikoaz gain beste helburu garbia du: ikastola berria ezagutaraztea eta Lautadan euskarak behar duen hedatze bidean ikastolak egingo duen ekarpena zabaltzea, hain zuzen. *“Jende askok ez daki oraindik Ikastolen Elkartearen dagoen ikastola bat sortu denik, eta alde horretatik mesedegarria izango zaio ikastolari festa antolatzea”,* jarraitu zuen. *“Ikastola berri honek laguntza berezia behar du, eta Araba Euskaraz jaia oso aproposa da gainerako ikastolen parte hartzeaz, Lautada Ikastolan behar dugun bultzada jasotzeko. Beraz, ez ahaztu zita bat duzuela Agurainen ekainean 20an”,* gaineratu zuen.

Maite Ortega duela hamabi urte hasi zen ikastetxean lanean. Gasteizkoa da eta joan-etorrian ibiltzen da. *“Ikastetxea ondo ezagutzen dut, baina oso bestelako lana da zuzendari lana. Denbora bat behar dut lan honetara egokitzeko ere. Esan dudan bezala, beste zuzendari kontsultatzen dizkiet etengabe nire zalantzak”,* aitortu zuen. •



## UN AÑO MUY INTENSO

Los padres y profesores de la recién inaugurada Lautada Ikastola de Agurain apenas pueden darse un respiro. Hace aproximadamente un año tuvieron que tomar una decisión trascendental cuando plantearon en asamblea la posibilidad de comprar el colegio de monjas para convertirlo en ikastola. Durante

este curso, profesores y alumnos están inmersos en el proceso de adaptación al modelo de las ikastolas y los padres inician ya las labores de preparación del próximo Araba Euskaraz que se celebrará en la localidad el 20 de junio.



## UNE ANNÉE TRÈS INTENSE

Les parents et enseignants de l'ikastola Lautada de Agurain n'ont pas eu le temps de souffler depuis l'inauguration de celle-ci. Il y a un an environ ils ont dû prendre une décision importante : envisager la possibilité d'acheter le collège des religieuses pour y implanter l'ikastola. Depuis le début de

l'année, enseignants et élèves sont plongés dans le processus d'adaptation au modèle des ikastola et les parents s'attendent déjà à la préparation du prochain Araba Euskaraz qui aura lieu dans la localité le 20 juin.



# ABUSU IKASTOLA, BILBOKO LA PEÑA AUZOAN

## 100 ikasletik 500era

Eraikin berria eta 2001eko Ibilaldia erabakigarriak izan dira Abusu Ikastolaren gorakadan. Oso urte gutxian 100 ikasle izatetik 555 izatera igaro dira eta 0-6 etapa hartuko duen bigarren eraikin baten proiektua lantzen hasita daude. Agurtzane zuzendariarekin eta Joseba gerentearekin mintzatu ginen.

**A**BUSUKO IKASTOLA Euskal Herrian dagoen eraikuntzarik ederrenetakoa da. Garai bateko irin fabrikaren horma zaharrak ditu osagarri berriekin kontrastean. "1997an etorri ginen eraikuntza honetara. Sartu ginenean 90 ikasle genituen eta orain bi lerrotako ikastola bat gara 555 ikaslerekin", hasi zitzaigun kontatzen Agurtzane Uriarte, azken zortzi urteotan bertako zuzendaria dena.

"Hemendik sei bat urtera 600-700 ikasle izango ditugu. LH4ra arte bi lerro dauzkagu. LH osoa bi lerroekin osatzen dugunean 700 izango gara, eta ez gara kabitzen. Ondare historikoa izaki, eraikinari ezin diogu ezer erantsi, eta aparkalekuaren gainean 0-6 etaparako beste eraikin bat eta jolastoki estali bat egiteko proiektua prestatzen hasita gaude", esan zuen Joseba Biguri gerenteak. Joseba Bigurik hiru urte

daramatza Abusun, baina aurretik 25 urte egin zituen Laudioko ikastolan. "Laudioko ikastola sendotuta zegoen, EFQM sari eta guzti, eta hemen esperientzia duen norbait behar zutela-eta etorri nintzen", esan zuen. Basauritik, Etxebarritik, Bilboko Alde Zaharretik eta gero eta gehiago Abusu bertatik datoz ikasleak ikastolara. Eskualde hori ezagutzen ez dutenentzat esan dezagun Alde

Zaharretik Abusu ikastolara hamar minutu ere ez daudela autobusean eta hogeita minutu oinez. "Auzoa handitzen ari da. Etxe berriak egiten ari dira eta bikote gazte asko ari da hemen sartzen. Guraso berrien artean, gainera, euskaldun kopurua gehitzen ari dela ikusten dugu. D ereduan edo ikastolan ikasitako gurasoak gero eta gehiago dira, eta hori bilerak egiten ditugunean sumatzen dugu; pasilloetan euskara

entzuten da. Erdaldunak dira nagusi, noski, gurasoen artean, baina azken urteotan 9-3 urteko umeen matrikulazioan guraso euskaldunak gehitzen ari dira", jarraitu zuen zuzendariak. Agurtzane Uriarteren ustetan, eraikin berriak eta 94ko Ibilaldia eragin izugarria izan zuten ikastolaren gorakadan. "2001ean bigarren Ibilaldia egin genuenean ezagutarazi zen inguruan ikastolaren

# SUKALDEA JOLASTOKI?

## ENEKO ATXAREN UMEENTZAKO ERREZETA LIBURUA

Eneko Atxa (Larrabetzuko Azurmendi, Bilboko Kalaka eta Madrigo Villa Magna jatetxeak. Michelin gidan izar bat.) sukaldari berezia da, beti ari baita bide berrien bila, beti moldeak hausten. Umeekin jolasean jarri zuen bere lagun batek, Andoni Lupiañez, Abusuko HHko ikasketa buruak, eta emaitza ikusgarria kaleratu dute. *"Eneko Atxa. Umeekin jolasean egiteko errezetak"* liburuak 21 errezeta, ipuin eta jolas ditu. Umeei amantala jantzi eta sukaldean gurasoekin batean lanean jartzeko gonbidapena da.

Umeei jolas egitea gustatzen zaie. Helduei ere tarteka komeni zaigu. Eneko Atxa sukaldariaren liburu berriak gurasoak eta haurrak elkarrekin jolasean zein lanean jartzeko aukera paregabek eskaintzen digu. Entsaladak, barazkiak, arraina edo okela prestatzeko errezetak dira, baina guztiek dute sukaldaritzaren berriaren ukitua. Tolosako babarrunak prestatu behar direla? Eneko Atxaren errezetak babarrun purea proposatzen du, yogurt bat balitz bezala, edalontzian, txistorra zatitxo batzuekin eta esnegainez estalita. Barazkiak jan behar ditugula? Japoniako erara, frijitu azkar batekin jarriko ditugu barazki ezberdinak. Oilasko errea? Zatiak arto xehetan pasa, eta zotz bana sartuko diegu gainetik eskuekin jan ahal izateko. Ez dira adibideak baizik. Dena da liburu honetan irudimena eta jolasa.

*"Umeek gero eta okerrago jaten dutela ohartzen gara. Gizentasuna eta gehiegizko pisua igotzen ari da gure ikasleen artean. Duela hamarkada pare bat %5era ez ziren iristen, eta orain %13tik gora dira gaixotasun horiek dituztenak. Kezka horrek bultzatuta hasi ginen orain bi urte Abusu ikastolan zerbait egin behar genuela pentsatzen. Sukaldea, bidenabar,*



*gurasoek eta seme-alabek elkarrekin jolas egiteko leku aproposa dela ikusi genuen. Eneko Atxari proposatu nion ideia, eta liburu berezi hau atera dugu",* esan zigun **Andoni Lupiañezek**. Zuzendari edo gidolari izan zen Andoni ETB1eko zenbait programatan.

*berak egin dituzten testuak. Errezeta bakoitzak lau pauso ditu eta argazki bidez erakusten dira pauso bakoitzaren zailtasunak. Di-Da Komunikazioak egin du diseinua eta Ibaizabalek argitaratu du lana. "Proposamen sinpleak egiten saiatu gara. Helduen laguntza behar dute,*

*baina elaborazioan umeek izan behar dute protagonista. Hori izan da behintzat gure asmoa. Abusuko ikastolan iazko urtean zehar frogak egin genituen, eta garbi dago umeek egin ditzaketela",* esan zuen Andonik.

## Eneko Atxa (Sukaldaria)

*"Guretzako oso garrantzitsua da 'jolas' hitza"*  
*"Andonirena da ideia. Berak sentiberatasun berezia du umeekin. Gu ere oso kezkatuta genbiltzan umeek dituzten jateko ohitura batzuekin eta arlo honetan ere zerbait egin genezakeela ikusten dibertigarriak proposatuz. Gurasoekin batean egiteko errezetak dira, baina jolas eginez, guretzako 'jolas' hitza oso garrantzitsua baita",* esan zigun Eneko Atxak.



### ABUSU, UNA IKASTOLA EN ALZA

Doce años ha necesitado la ikastola Abusu para pasar de una matrícula de 90 alumnos a 555. Si esta progresión se mantiene, dentro de seis años llegarán a los 700, por lo que están trabajando ya en el proyecto de un nuevo edificio para la Educación Infantil. Entrevistamos a la directora Agurtzane Uriarte y

al gerente de la ikastola Joseba Biguri y también estuvimos con el responsable de Educación Infantil, Andoni Lupiañez, que ha sido el promotor de un libro de recetas para niños en el que participa el joven cocinero Eneko Atxa (chef de Azurmendi, Kalaka y Villa Magna de Madrid).

### L'IKASTOLA ABUSU A LE VENT EN POUPE

L'ikastola a vu ses effectifs passer de 90 à 555 élèves en douze années seulement. Si cette progression se maintient, dans six ans 700 élèves y seront scolarisés. Pour anticiper cet essor, l'ikastola pense à un nouveau bâtiment pour la section maternelle. Nous nous sommes entretenus avec Agurtzane, Joseba et

Andoni Lupiañez, respectivement directrice, gérant et responsable de la maternelle de l'ikastola. Andoni a par ailleurs été l'instigateur d'un livre de recettes de cuisine pour enfants auquel a collaboré le jeune chef Eneko Atxa (restaurants Azurmendi, Kalaka et Villa Magna de Madrid).

berri, eta orduan hasi ziren matrikulak igotzen. Orduan hasi ginen, hain juxtu ere, buelta ematen egoerari", esan zuen.

Joseba Bigurik ikastolak familiekiko duen hurbiltasuna nabarmendu zuen. *"Orain gutxi arte ikastola txikia izandakoa da, eta oraindik eutsi egiten dio hurbiltasun horri". "Familia bat izango bagina bezala funtzionatzen dugu gauza askotan. Edozein zalantza dutelarik ere, idazkariarengana edo nirengana hurbiltzen dira. Hurbiltasun hori ez genuke galdu nahi, zaila bada ere",* erantsi zuen Agurtzane.

Abusuk, bestalde, irakasle oso gazteak ditu eta gogotsuak. *"Hemen batzuetan frenoa jarri behar izaten diezu irakasleei, proiektu handietan sartu nahi izaten dutelako. Lanerako gogoia sumatzen zaie. Epe laburrean kontratazio asko egin behar izan dugu, eta oso talde ona osatu dugu",* erantsi zuen Agurtzane.

*"Umeek gero eta okerrago jaten dutela ohartzen gara. Gizentasuna eta gehiegizko pisua igotzen ari da gure ikasleen artean. Sukaldea gurasoek eta seme-alabek elkarrekin jolas egiteko leku aproposa dela ikusi genuen."*

*"Proposamen sinpleak egiten saiatu gara. Helduen laguntza behar dute, baina elaborazioan umeek izan behar dute protagonista."*

*dipuzkoa:*



# ARIZMENDI IKASTOLAKO KULTURGUNEA

## Bost urte nesken futbola bultzatzen

Arizmendi Ikastolak bost talde ditu gaur emakumezkoen futbolean. Guztira, 80 bat neska. Sekulako lana egiten ari dira azken urte hauetan. Urteko ligaz gainera Gabonetako Emakumezkoen Futbol Txapelketan ere hartzen dute parte. Euskal Herriko neska talde onenak ekartzen dituzte: Athletic, Real, Nafarroako Lagunak eta Eibar; horien kontrako partidak egiten dituzte Oñatiko eta Soraluzeko neskekin batean (Aloña mendi Oñatiko taldea, Soraluzeko futbol elkarte, Arrasateko Mondra eta Arizmendiko nesken taldeko jokalariekin sortutako selekzioak, hain zuzen). Gabonetako Nesken Futbol Astea ere antolatzen dute Almenen Azpeitia, Azkoitia, Amezketa, Beasain, Elorrio, Durango, Miranda, Zaramaga eta beste hainbat neska talderen kontra.



**O**RAIN SEI URTE, Gari Ibarzabal eta Urtzi Amiano Arizmendi Ikastolako kirol elkartearen koordinatzaileak hasi zirenean nesken talde bakar bat aritzen zen futbolean. Orain nesken bost talde dituzte ikastolan. Guztira 80 bat neska aritzen dira futbolean. "Gabonetako oporrak baliatzen ditugu euskal talderik onenen kontrako partidak jokatu eta Nesken Futbol Astea antolatzen. Hori guztia eskualdeko komunikabideetara zabaltzen saiatzen gara, gizarteratzen. Eskualdeko telebistan programa bat eskaini zioten iaz, esate baterako, eta irratietan ere oihartzuna izaten du. Mirandan egiten den emakumezkoen txapelketa batzuetara ere joaten gara gure taldeekin. Berrogeita hamar bat guraso ere etortzen dira animatzera. Egia da mutilen futbolak beste inar bat duela, baina gure helburua neskek ere kirola egitea da. Gu lanean hasi ginenean DBH.3ra iristean ingelesa edo musikarekin jarraitzen zuten neskek, baina kirola utzi egiten zuten albo batera. Lanean hasi ginenetik oso erantzun ona izan dugu. Futbol taldeez

gainera, saski-baloian 15 neska ditugu eta igeriketan beste 20 inguru dira. Harrigarria bada ere, neskek ere kirola egin dezaketela frogatzen ari gara! Horrek esan nahi du, besteak beste, aste barruan ordu eta erdiko entrenamendu pare bat egiten dituztela eta asteburu oro partida bat jokatzeko dutela. Horrela, gure ikasleek %80k kirolen bat egitea lortu dugu", esan zuen Gari Ibarzabalek, Arizmendi Ikastolako Kulturguneko koordinatzaileak.

Kulturguneko kirol elkarteak, bestalde, ahalegin handia egin du bailaran ez zeuden kirolei ateak zabaltzen, squash eta esgrimari, adibidez: "Ikasturte honetan jarri nahi dugu azken hau martxan, ikasleek artean ez ezik gure bailarako jendearentzat ere, kirol ezezagun hau sustatzen ari baikara" kontatu zion Gari.

#### ANTZERKIA ETA ABESBATZA

Arizmendi Ikastolaren kirol elkarteak Kulturgunearen barruan dagoenez, aisialdiaren inguruko ekintza guztiak koordinatzen ditu, hala nola, kirola, antzerkia,

"Harrigarria bada ere, neskek ere kirola egin dezaketela frogatzen ari gara! Honek esan nahi du, besteak beste, aste barruan ordu eta erdiko pare bat entrenamendu egiten dituztela eta asteburu oro partida jolasteko dutela."

udalekuak, eta beste. "Kirolaz gainera, antzerkia, abesbatza, euskal dantzak eta artelanak eskaintzen ditugu. Baina horiez gainera, eski irteerak, mendi-bizikleta ibilaldiak zein udalekuak antolatzen ditu Kulturgunek", jarraitu zuen Gari. Gehienak eskola ordutegitik kanpo egiten dira.



GARI IBARZABAL, ARIZMENDI IKASTOLAKO KULTURGUNeko KOORDINATZAILEA DA. BEREKIN BATERA LANEAN URTZI AMIANO, GORKA GABILONDO, KEPA ISASMENDI, INIGO LANIZ, OLATZ MANUEL ETXISTO ARI DIRA.

Sei urte dira Arizmendi Ikastolako aisialdi ekintza guztiak koordinatzeko kulturgunea martxan jarri zela. Gurasoek leku handi izaten jarraitzen dute.

Gari Ibarzabalen lan ordutegia, beraz, ez da inoiz bukatzen arratsaldeko seieta. "Ez, ez. Asteburuetan ere gehienetan harrapatuta izaten gara aisialdian lana egiten dugunok: Urtzi Amiano, Gorka Gabilondo, Kepa Isasmendi, Iñigo



GARBERA  
ARRASATE





IPARRALDEKO BIRA ERE EGINA  
DUTE BIZIKLETAN. ESKALADA,  
ESPELEOLOGIA, RAFTING-A, MENDIA  
ETA BESTE HAINBAT EKINTZA.

Iaz 466 ikaslek hartu zuten parte udalekutan, bost urtekoekin hasi eta batxilergoekin bukatuz.

### LAS CHICAS SE APUNTAN AL FÚTBOL

Arizmendi de Arrasate es una de las ikastolas que más importancia concede a la práctica del deporte y a la utilización adecuada del tiempo libre en su proyecto educativo. Desde hace cinco años se han tomado muy en serio la promoción del deporte femenino. Cuentan con cinco grupos de fútbol femenino que participan cada año durante las vacaciones de Navidad en un campeonato que enfrenta a los mejores equipos de la comarca con los grupos vascos que juegan en la Superviga, como el Athletic o la Real. Arizmendi Ikastola ha logrado que cerca del 80% de sus alumnos practique algún deporte o se implique en actividades culturales tales como manualidades, teatro, canto o Euskal dantza.

### LES FILLES JOUENT AU FOOT


L'ikastola Arizmendi d'Arrasate est l'une des ikastola accordant le plus d'importance au sport et à la bonne planification du temps libre dans son projet pédagogique. Cela fait cinq ans qu'elle développe plus particulièrement le sport fémininement. L'ikastola compte ainsi cinq équipes féminines de football qui participent chaque année, durant les vacances de Noël, au championnat réunissant les meilleures équipes de la région et les équipes jouant en Superliga comme l'Athletic ou la Real. Près de 80% des élèves de l'ikastola pratiquent un sport ou des activités culturelles comme les travaux manuels, le théâtre, le chant ou la danse basque.

*Lariz, Olatz Manuel eta Txisto; eta uztailen ere bai, noski. Ikasturte bakoitzean dena martxan jartzea kostatzen da, taldeen entrenatzaile eta arduradunak aurkitzea, adibidez. Telefonotik zintzilik igarotzen dugu eguna. Gero lasaiago ibiltzen gara, ordea",* aitortu zuen.

Sei urte dira Arizmendi Ikastolak aisialdiko ekintza guztiak koordinatzeko Kulturgunea martxan jarri zuela. Hogeita hamar urtetan gurasoak izan ziren Kirol Elkartearen bidez Arrasateko ikasleolan kirolaren ardura beren gain hartu zutenak. "Leintz Bailaran, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako ikastolak Arizmendi Ikastola kooperatiba erraldoian elkartu zirenean beste egitura bat sortu behar izan genuen; eta Urtzi Amiano eta biok izendatu gintuzten Kulturgunearen barruan dagoen kirol elkarteko koordinatzaile. Halaz ere, gurasoek leku handia izaten jarraitzen dute kulturgunean!", erantsi zuen Gari Ibarzabalek.

### SANTIAGORA BIZIKLETAN

Badira hamar urte maiatzeko hirugarren astean Bordelen egiten diren txapelketa batzuetara joaten direla. "Bordeleko Nazioarteko Futbol Txapelketa da. Gu bi edo hiru talderekin joaten gara. Sekulako jipoiak hartzen dituzte Barçaen edo Girondins-en kontra, baina harro ibiltzen dira. Guraso



*talde handi bat ere etorri ohi da. Hirurogei bat talde biltzen dira, guztiak oso leku ezberdinetakoak. Kirolaren bidez kultura ezberdinen arteko*

*topaketak egitea izaten dute helburu", kontatu zuen Garik. Iparraldeko Bira ere egina dute bizikletan. Hogeita hamar ikaslek hartu*

zuten parte. Arizmendik, bestalde, udalekuak antolatzen ditu. Astebeteko egonaldiak dira eta eskalada, espeleologia, rafting-a, mendia eta beste hainbat ekintza egiten dituzte handienek. "Iaz 466 ikaslek hartu zuten parte udalekutan, bost urtekoekin hasi eta batxilergoekin bukatuz. Txikienak Garesera joaten dira, seigarrenengo Otsagira, DBH.1 eta 2 Zurizara, eta hortik gorakoekin Santiago Bidea egiten hasi ginen lehen urtean 30 ikaslerekin eta iaz 67ikasleko talde batekin bizikletaz. Horretarako monitore eskola bat ere sortu genuen ikastolan bertan batxilergoko ikasleekin. Burgostik abiatu ohi gara. Urtero gauza bera ez egiteko, inoiz Picos de Europar ibilaldiak ere antolatu izan ditugu", jarraitu zuen Garik.

Antzerkian hiru talde dituzte, 45 bat ikasle guztira; abesbatzan, euskal dantzan... aukera guztiak zabalik daude, eskaera gehienei erantzuteko asmoz.



# Etorkinek ere hitza izan zuten Orioko ikastolaren eraikin berriaren inaugurazioan

Herriaren erdigunean, ikastola nagusiaren kontra eta ondoan herriko kiroldegia duela eraiki dute Orioko Herri Ikastolak DBHrako erabiliko duen eraikin berria. Ekitaldi hunkigarria antolatu zuten urriaren 25ean. Eraikineko areto nagusian izan ziren hitzaldiak. Ikastolak 38 urtetan ezagutu dituen kokapenen berri eman zuen bideo labur batek. 2004ko Kilometroak ekarri zituzten gogora batzuek, "orduko olatuari esker altxatu baitugu eraikina". Ikastolako lehen andereñoak, Sagrariok, hitz egin zuen, lehen gurasoek egin zuten lana nabarmenduz..

**E**KITALDIKO une gogoangarriak etorri ziren ondoren. Lituaniatik etorritako Audra Almanaityte, Danbolin Musika Eskolako piano irakasle eta ikastolako amak hitz egin zuen lituanieraz eta euskaraz, ikastolan jaso duen harrera eta maitasuna aipatzeko. Segidan **Hossain Kaanache** korrikalaria mintzatu zen, arabieraz lehenik eta euskaraz gero. "Ni 12 urterekin etorri nintzen ikastolara eta berehala ohartu nintzen nire bizitzako aldaketa horixe izango zela; urteak pasatu ahala nire gurasoek hartu zuten erabakiaz harro nago eta baita eurak ere. Une honetan naizenaren zati handi bat bertan jaso nuen. Gaur egun irakaslea naiz eta orduko erreferenteak ditut eredu", esan zuen beste gauza askoren artean.

Ikasle bezala Orioko ikastolan ibili eta gaur irakasle den **Jon Manterolak** hitz batzuk egin zituen segidan. Ikastolako batzordeko ama batek "gure izaerarekin, sentitzeko moduarekin, hizkuntzarekin eta kulturarekin bat datorren hezkuntza eredu duela bidali ditugu gure seme-alabak bertara", esan zuen. Eta egunotan eraikin berrian sartuko den ikasle



INAKI BERAZA (ORIOKO HERRI IKASTOLAREN ZUZENDARIA), IMANOL IGEREGI (EHIREN ZUZENDARIA), JON REDONDO (ORIOKO ALKATEA), KOLDO TELLITU (EHIK ETA EHIREN LEHENDAKARIA), ARANTZA MANTEROLA (GIEKO LEHENDAKARIA), JOKIN IZAGIRRE (ORIOKO HERRI IKASTOLAREN LEHENDAKARIA), HASIERA EKITALDIAN.

batek, Mariak, bukatu zuen txanda.

**Arantza Manterolak**, GIEko lehendakariak, hartu zuen hitza eta aurtengo bi gertakari garrantzitsu nabarmendu zituen: Gipuzkoako Foru Aldundiak "andereño historikoei" eman dien urrezko domina batetik, eta GIEren 40. urtemuga bestetik. Ikastolako lehendakariak, Jokin Izagirrek, itxi zuen ekitaldia ikastolaren historia gogora ekarri ondoren. Kopuruak ere aipatu zituen lehendakariak: "gaur egun ia 600 ikasle eta 54

langile ditugu. Gaur inauguratzen dugun eraikina DBHko 126 ikaslerentzako da", esan zuen. Eraikin horren bi oinarriak ere aipatu zituen, hala nola, ingurumenarekiko konpromisoa (uraren eta argiaren erabilera arduratsua) eta teknologia berrien erabilera (Ikasys-en aitzindari izan da ikastola).

Orioko Herri Ikastolak diskoa eta aldizkaria ("Pergolan") kaleratu berri dituela ere jakinarazi zuten. Eraikin berriaren atarian diskoan parte hartu duen ikasle taldeak kanta batzuk



abestu zituen eta dantza taldeak koreografia bat egin. Orioko alkatea eta Ikastolen Elkarteko lehendakariak, **Koldo Tellituk**, hitz egin zuten ondoren. Azken honek ikastolek bultzatzen duten publikotasunaren kontzeptua agertu zuen. "Gurea baino ikastetxe publikoagorik ba al da? Herritik sortu ziren ikastolak, ekonomia sozialean oinarrituta, aberasteko asmorik ez dugu eta zerbitzu publikoa ematen ari gara", esan zuen. Bi urteko ume batek moztu zuen zinta. •

"Gurea baino ikastetxe publikoagorik ba al da? Herritik sortu ziren ikastolak, ekonomia sozialean oinarrituta, aberasteko asmorik ez dugu eta zerbitzu publikoa ematen ari gara."





# EUSKARA BERE HERRIAN LEGEZKO IZAN DADIN

## Deiadarrak erantzun bikaina izan zuen

Milaka lagun bildu ziren urriaren 24an Baionan euskararen ofizialtasuna eskatzeko, eta bidenabar, hitz emandako lege egitasmoa gauzatzeko aldarrikatu zioten Gobernu frantsesari. “Euskarari lege babesa, euskarari ofizialtasuna” zioen manifestazio buruan zeramaten pankartak, eta honen atzean Euskal Herriko Ikastolak, Seaska, AEK, Euskararen Kontseilua eta Euskal Konfederazioa ordezkaten zutenak zihoazen. Ipar Euskal Herriko ikastola guztiek ere ofizialtasuna eskatzen zuten, bakoitzak bere pankartatxoarekin. Antolatzaileek gogoratu zuten, nahiz eta handiena izan, ez da ofizialtasuna exijituz egiten den lehena, beste bost aldiz ere bete baitituzte Baionako kaleak, 2000 urtean azkenekoz. Frantziako konstituzioan aldaketa txiki bat ezarri dute, “lurralde hizkuntzak” ondare gisa izendatuz, baina honek ez du praktikan eraginik izan. Frantziak frantsesari ematen dion status bera aldarrikatu zuten manifestariek Baionan, okzitanoek eta katalanek Carcassonnen, eta bretoiek Karaezen; eta hizkuntza gutxituen normalizazioa ekarriko duen politika bat eskatu zuten guztiek.





## XABIER MENDIGUREN

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAREN IDAZKARI NAGUSIA

**Zein da Euskararen diagnostikoa Ipar Euskal Herrian?**

Gaur egun euskarak ez du egokia den estatusik. Estatu frantsesak egin berri duen moldaketarekin ondare-izendapena eman dio euskarari eta baita gutxituak dauden gainerako hizkuntzei ere, baina ez du beste urratsik egin. Horrek esan nahi du izendapen horrek ez duela eskubiderik aitortzen; egiten duena da altxor moduan, museo batean dagoen irudi estanko baten moduan ezartzea. Oso momentu berezia bizi da Ipar Euskal Herrian, izan ere, frantses Estatuak hizkuntza horiek arautzeko legea egingo duela hitz eman, eta ondoren hitz hori jan egin du. Lege hori euskarak behar duena ez izatearen arriskua dago, eta horregatik beharrezkoa zen manifestazioa egitea; kalean eta modu jendetsuan aldarrikapen hori egitea, alegia. Aurretik beste "Deiadar" batzuk ere egin izan dira eta horiek emaitza positiboak eman dituzte.

Ofizialtasunaren eta lege baten aldarrikapena egin dugu bertan. Ofizialtasunarekin euskararentzat estatus egokia aldarrikatzen dugu; hau da, hizkuntza horrek bertako hizkuntzak gainerako herrietan duen estatus berbera izatea esan nahi dugu. Horrek euskaraz bizitzea ahalbidetuko luke, hizkuntza- eskubideak bermatzea eta hau babestuko duen marko-juridikoa sortzea. Euskarak behar dituen da estatus eta lege egoki bat, euskararen normalizazioa ahalbidetuko duen hizkuntza-politika gauza dadin.

Bestetik, Kontseiluak aspaldi definitu ditu betebeharreko minimoak zeintzuk diren. Legeak estatus egokiaren hutsunea bete beharko luke. Hezkuntza-sistemak, gainera, belaunaldi berriak osorik euskaldundu behar ditu, baita goi mailako ikasketen eskaintza egin ere. Horretaz gain, administrazioa eta bere zerbitzuak euskaldundu behar dira; alor sozio-ekonomikoa euskalduntzeko bideak eskaini; gizarteko beste alorrak euskaldundu, hala nola, aisia, kirola, hedabideak, kultura, etab; diru-baliabideak, administratiboak eta giza baliabideak nabarmen handitu behar dira eta, azkenik, helduen euskalduntzeari izaera estrategikoa aitortu behar zaio. •



## PASKAL INDO

SEASKAREN LEHENDAKARIA

**Estatu frantseseko hizkuntza gutxituen mobilizazioa nolakoia izan da?**

Arraskatsua izan da biziki mobilizazioa. Baionan sekulan euskararen alde egin den manifestaziorik handiena izan da, 5000tik gora lagun bildu baitira. Carcassonen, 20000 tik gora ziren okzitaniarren alde eta katalanaren alde, sekulan egin duten handiena hura ere. Zifrak ez dira hala ere konparagarriak, Okzitaniako eremua Baionatik Italiaraino doan lurraldea baita, milioka biztanle dituen. Horiei Ipar kataluniako herritarrak batu zaizkie. Britainiar aldiz, urte guztiz Karaezen egiten duten liburu azokan egin zuten elgarretaraztea. Kortsikan eta Alsazian mobilizaziorik iragarriak ez bazegoen ere, elkartasun mezuak helarazi zizkiguten.

Jende kopurua inportantea baldin bada ere, Baionako manifestazioan argi eta garbi ikusi genituen lehen aldiz familia politiko orotakoak euskararen aldeko lege bat galdeginez. Deiadar manifestazioarekin urrats historikoa eman da, eta orain ez dago atzera egiterik lege bat lortu arte. Eta ez duda, lortuko dugu. •



## KOLDO TELLITU

IKASTOLEN KONFEDERAZIO ETA ELKARTEAREN LEHENDAKARIA

**Zer eskaini dute ikastolek eskaera honetan?**

Ikastolak izan dira manifestazioaren motorra eta arima, manifestazio aurretik eta egunean bertan ere. Larunbatean Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoako ikastola guztiak mobilizatu ziren, ikastola bakoitza bere pankartaren atzean. Manifestazioan milaka jenderen artean gehiengoak ikastoletako jendea zela erratean uste dut ez naizela oso oker ibiliko. Adin guzietako jendea bildu zen han, eta euskarari bizirik eutsi eta biziarazteko prest daudela frogatu zuten. Hegoaldetik ez genuen uste bezain bat jende mugitu, baina hiru autobus atera ziren eta hainbat jende autoz joan zen. Euskal Herriko kooperatibako arduradunak, eta hainbat eta hainbat ikastolatak ordezkaririk ere joan ziren Baionara. Kooperatiba sortzean mugarik gabeko European urratsak emateko xedea agertu genuen, eta uste dut urriaren 24ean hitza bete genuela. Ikastolen arteko elkartasuna bultzatu behar dugu, Ebrotik Aturriraino. Seaskako lagunek egin duten lana izugarria izan da, eta zoriondu egin nahi ditut egin duten lan handi eta onagatik. •



## MIXEL ORONÓZ

EUSKAL KONFEDERAZIOAREN LEHENDAKARIA

**Aurrera begira, zer?**

Gobernuak mementu batez gibel egin badu ere, euskararendako legea erdietsiko dugu, ofizialtasuna lortuko dugu. Sarkozy eta Fillon jaunari eman duten hitza oroitaraziko diegu. Ez, euskara ez dute museo batean gordeko. Euskarak bere tokia berreskuratuko du plazan, zerbitzu publikoetan eta bizitza alor guzietan. Azken hilabeteetan lan inportantea egin dugu frantziar Estatuoko beste herriekin, eta lan horrek segida ukanen du manifestaldiaren ondoren ere. Gure aldetik Euskal Konfederazioarekin lan horretan segituko dugu, baita gure hautetsiak akulatzen ere. Legea biziki inportantea da, baina ez da aitzakia izan behar ez deuseren egiteko Herriko Etxe eta bestelako egituretan. Ezin dugu lege baten zain egon; lan egin behar dugu eta lan horri esker salbatu eta garatuko dugu euskara. Denok elgarrekin aitzinatua behar dugu urratsez urrats, zor daukutena erdietsi arte. Bide horretan Kontseilua eta Euskal Konfederazioa bidelagun izanen dira, orain arte bezala. •

### MILES DE VOCES EN TODO EL ESTADO FRANCES

Miles de personas se reunieron en Baiona el pasado 24 de octubre para exigir la oficialidad del Euskara en el Estado francés. Resultó ser la manifestación más masiva convocada desde el año 2000. Todas las ikastolas de Iparralde y una representación de hegoalde participaron activamente en la misma.

El abánico político abarcaba todos los colores. El Euskara une. El mismo estatus fue solicitado por los occitanos y catalanes en Carcassone y por los bretones en Karaezen. La demanda es común: una ley que proteja y normalice las lenguas minoritarias del Estado.



### DES MILLIERS DE VOIX DANS TOUT L'HEXAGONE

Des milliers de personnes ont défilé dans les rues de Bayonne le 24 octobre dernier pour demander l'officialisation de la langue basque en Iparralde. Toutes les ikastola d'Iparralde et une délégation de celles d'Hegoalde ont pris part à cette manifestation, la plus importante en faveur de l'euskara depuis 2000. Des représentants

politiques de tous bords étaient également présents. L'euskara rassemble. Le même statut a été revendiqué par les occitans et les catalans à Carcassonne et par les bretons à Karaez. Autre demande commune: la présentation du projet de loi relatif aux langues territoriales par le Gouvernement français, comme il s'y était engagé.



## ERAIKIN BERRIA EGINGO DUTE TAFALLAN

### Txiki geratu zaie orain 12 urte handitu zuten egoitza

Datorren urtean beteko ditu Tafallako Garcés de los Fayos ikastolak 40 urte, eta urtemuga hori eraikin berri bat egiten hasiz ospatu nahi dute. *“Orain 12 urte egin genituen ikastola handitzeko lanak. Sekula ez genuen ikastola hau beteta ikusiko genuenik uste, eta kabitu ezinik gabiltza”,* esan zigun Rexu Urrutia zuzendariak eraikin berriaren aurreproiektua bere bulegoko mahaiaren gainean zabaltzen zuen bitartean. *“Lerro bakarreko ikastola bat aurreikusi genuen, baina bigarren lerroa jautzia egiteko zorian gabiltza. Badugu talderen bat berrogeikoa, eta hogeita hemeretzi eta hogeita hamabikoak ditugu beste batzuk. Bigarren lerroa ezarri ahal izateko ez dugu DBH beste eraikin batera eramatea beste erremediorik”,* jarraitu zuen.

**B**I URTE BARRU, 2011an, antolatu nahi dute Tafallan hirugarren aldiz Nafarroa Oinez, eta ordurako eraikuntza berriaren oinarriak jarrita badaude, ikastolen festak sortzen duen giroarekin seguru daude bi lerroak osatzeko adina haur bilduko dituztela.

Ikastola guztiak dituzte merituak, baina are

handiagoak dituzte Tafallakoa bezala inguru erdaldun batean jaio eta hazi direnek, hain zuten ere “eremu ez euskaldunean” baitago ikastola hau, nahiz eta euskararen arrastoak bertan oso nabarmenak izan, ikerlari zenbaitek adierazi dutenez.

*“Ni eremu euskaldun batetik etorri nintzen hona, eta harritu egiten nintzen*

*kalean ikastolako haurrak euskaraz hitz egiten entzunda. Familia erdaldunetakoak ziren gehienak, baina euskaraz hitz egiten zuten kalean”,* gogoratu zuen Rexu Urrutiak.

Zortzi ikaslerekin abiatu zen ikastola orain 39 urte. Hiru familia izan omen ziren ikastola sortu zutenak. Orain 377 ikasle ditu.

**“Iruñea joaten bakarrik astean 17 ordu gehiago ematen dituzte gure ikasleek, eta urrutiago dituzten institutueta joaten hasten badira, gehiago. Hemen ez dute euskaraz batxilergoa egiteko aukerarik. Gobernuak erantzun bat eman behar digu.”**

Tafallako ikasle erdiak Eskolapioen ikastetxeak hartzen ditu eta beste erdiak publikoaren eta ikastolaren artean banatzen dira.

Bi Nafarroa Oinez antolatu ditu Tafallako ikastolak dagoeneko, eta bigarrena 1997an egin zuen. Horrek bultzada handia eman zion ikastolari. Ikastolaren egoitzak dituen

eranskin berriak orduan egindakoak dira, baina bete egin zaie. Pasilloetan ari dira zenbait ekintza burutzen. "Hiru zati ditu ikastolak. Garai bateko herriko eskola dago oinarrian. 1986an egin zen lehen Nafarroa Oinezi esker bikoiztu egin zen ikastola, eta bigarrenaren ondoren Udalak lur sail bat utzi zigun; orduan eman genion gaur duen itxura", esan zuen **Jokin Garate** LHko koordinatzaileak.

### ERAIKIN BERRIA

Ikastolaren gaurko egoitzaren kontra leku bila ibili ziren hasiera batean eraikin berria ondoan

egiteko asmoarekin, baina ez zuten aukerarik ikusi. "Hemendik bost minutu dira oinez. Herriko kiroldegia, zaharren etxea eta eskola publikoa dauden gune berri bat antolatzen ari dira, eta han leku egokiagoa zela ikusi genuen. Eraikin berriak bi solairu izango ditu; hegal baten azpian leku estalia jarri nahi dute atsedendietan ikasleek babesa izan dezaten, eta frontoia eta gimnasioa ere izango ditu bertan. Zortzi gela izango ditu eta ekitaldietarako aretoa. Ingurumenarekiko konpromisoa eta energia berriztatzaileen auzia oso kontuan hartu nahi ditugu, baina aldi berean orientazioa ondo ikertu nahi dugu, eguzkiak oso gogor jotzen baitu", esan zuen

**Izaskun Aldaia** DBHko koordinatzaileak.

Tafallako ikastola lantzen ari den aurreproiektu horretan deigarri egiten den datu bat dago, gela batzuk Batxilergorako izendatu baitituzte. "Gure ikasleak orain arte Iruñeko Iturramako institutura joaten ziren Batxilergoa euskaraz egitera, autobus geltokitik gertu zutelako. Laz, ordea, bakarra matrikulatu zuten, lekurik ez zutelako. Iruñea joaten bakarrik astean 17 ordu gehiago ematen dituzte gure ikasleak, eta urrutia dituzten institutueta joaten hasten badira, gehiago. Hemen ez dute euskaraz batxilergoa egiteko

aukerarik. Gobernua erantzun bat eman behar digu. Zeharka bada ere esan digute beharbada geuk Batxilergoa jartzea izango dela aurrera begira bidea, eta aukera hori zabalik utzi nahi dugu eraikin berria egiten dugunean. Edozein modutara ere, 2012rako eraikina bukatu nahi genuke", esan zuen **Kontxi Aranaz** HHko koordinatzaileak.

Aurreko obra zuzendu zuen arkitektoarekin, Amaia Jaurrietarekin, ari dira lanean.

Tafalla nortasun handiko herria izan da beti. Festak, dantzak eta kantuak sekulako indarra dute bertan. Horren lekuko da ikastolako ikasleek ateratzen duten konpartsa ere. •

### UN EDIFICIO PARA ESO

La ikastola de Tafalla cumplirá 40 años el año que viene y la efeméride puede coincidir con el inicio de las obras del nuevo edificio que albergará a los alumnos de ESO y a unos hipotéticos cursos de Bachillerato, en el caso de que se vea factible esa opción. Cuando hace doce años ampliaron el actual edificio gracias a dinero aportado por el segundo Nafarroa Oinez, consideraban imposible que un día se llenaran las aulas, pero ya están saturadas. "Tenemos la posibilidad de implantar la segunda línea, pero para ello necesitamos trasladar la ESO a otro edificio", declaró la directora del centro Rexu Urrutia. Por otra parte, la ikastola acaba de presentar dos nuevos gigantes de su comparsa, Kolaino y Pepita, una pareja que recuerda a Romeo y Julieta, pero en versión local.

### UN NOUVEAU BÂTIMENT POUR LE SECONDAIRE

L'ikastola de Tafalla aura 40 ans en 2010. Cette date anniversaire pourrait coïncider avec le début des travaux du nouveau bâtiment qui abritera les élèves du collège et éventuellement ceux du lycée si l'ikastola développe ce cycle. Quand, il y a douze ans, l'ikastola inaugura ses locaux actuels grâce au second Nafarroa Oinez, elle était loin d'imaginer que les salles de classes seraient un jour pleines à craquer. Elles sont aujourd'hui saturées. "Nous avons la possibilité d'ouvrir un nouveau cycle mais pour cela nous devons transférer le Secondaire dans un autre bâtiment" a souligné la directrice du centre Rexu Urrutia. Par ailleurs, l'ikastola vient de présenter deux nouveaux géants de sa comparse, Kolaino et Pepita, personnages rappelant Roméo et Juliette mais en version locale.

## Unai Martinez

(Konpartsa kidea)

"Gurea da Nafarroako gaztetxoaren lehen konpartsa"

Joan den hilean egin zuten Tafallako Ikastolako konpartsaok bi erraldoi berrin aurkezpena. Batak Kolaino du izena eta besteak Pepita. Maitasun istorioa da bi pertsonaia hauen artekoa, baina aldi berean eskualdeko historia ere ekartzen du gogora.

"Hamabost mutil eta neska bat gara konpartsan, txandan ibiltzeko jende asko behar izaten delako. Eta gurasoak ere ibiltzen dira laguntzen, erraldoiak batetik bestera eramateko furgoneta behar izaten baita", hasi zen kontatzen Unai.

DBHko ikasleak dira erraldoiekin ibiltzen diren

hauek. 1986ko Nafarroa Oinez zela-eta sortu zen Tafallako Ikastolako konpartsa, eta Nafarroako gaztetxoaren lehen konpartsa da. Sei erraldoi dituzte. Oraindainokoa lau zituzten eta orain hilabete aurkeztu zituzten beste bi: Kolaino eta Pepita.

"Kolaino Tafallakoa zen eta Oliteko Pepitaz

maiteminduta zegoen. Tafalla eta Olite ez dira inoiz oso ongi konpondu, eta badirudi Kolainori koplak ere atera zizkiotela. Istorio horretan oinarritu gara bi erraldoiak egiteko, eta aurkezpen horretan ezkondu egin genituen", jarraitu zuen Unai Martinezek.

Tafallako festetan ibiltzen

dira, Olentzero egunean ere ateratzen dira, eta inauterietan ere bai. "Horretaz gainera, inguruko herrietara ere mugitzen gara. Egun erdiko jarduna izaten da", esan zuen Unai.

Erraldoiak ondo erabiltzeko astero entseatzeko dute ikastolako gimnasioan. Bi gaitero bikote eramaten dituzte ateratzen diren bakoitzean. Ikastolako bi irakasle badira gaiteroen artean.

Unai "Gudari" izeneko erraldoiarekin ibili izan da, baina orain Kolaino jarri diote. •

"DBHKO IKASLEAK DIRA ERRALDOIEKIN IBILTZEN DIRENAK. 1986KO LEHEN NAFARROA OINEZ ZELA-ETA SORTU ZUTEN IKASTOLAKO KONPARTSA. NAFARROAKO GAZTETXOEN LEHEN KONPARTSA DA. ASTERO ENTSEATZEN DUTE IKASTOLAKO GIMNASIOAN."



# DURANGOko AZOKAN IZANGO DA **.EUS**-i ATXIKIMENDUAK EMATEKO AUKERA

**Ikastolak prest daude  
ekimenari azken bultzada emateko**

Batzuentzat ez da ikur bat baizik, baina esan nahi handiko ikurra da, **.EUS** domeinuak Interneteko espazio birtualean euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen baitu. Are gehiago, **.EUS** domeinuak euskara lehen mailako hizkuntza bihurtzen du Interneten, mundu mailako aitortzea eskainiko baitio, eta hura sustatzeko bitarteko eraginkor bihurtuko baita. Baina bidea luzea da oraindik.



# EUS



"HIRU ESKAKIZUN BETE BEHAR IZAN ZITUZTEN: KOMUNITATEAREN BABESA ERAKUTSI, BIDERGARRITASUN EKONOMIKOAREN PLAN BAT EGIN ETA BIDERGARRITASUN TEKNIKORAKO BESTE BAT."

**T**BILBIDE HORREN LEHEN PAUSOA IAZKO APIRILEAN EMAN ZEN, PUNTUEUS ELKARTEA SORTU ZENEAN. "PuntuEus Elkarteak izango da, euskararen eta euskal kulturaren izenean, .EUS domeinua lortzeko eskaria aurkeztuko duena. Elkarte hori euskalgintzan ari garen hamaika elkarte edo erakundek osatu genuen", hasi zitzaigun agerpenak ematen Xabier Arrieta, Ikastolen Elkartearen idazkaria. Ikastolek partaidetza zuzena izan dute elkartearen sorreran, Xabier Arrietak Partaideren izenean hartu baitu sorreratik eta Koldo Tellituk Ikastolen Konfederazioaren izenean lehen, eta Ikastolen Elkartearen izenean orain.

Euskaltzaindia, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, Euskal Konfederazioa eta Euskal Idazleen Elkarteak —Hegats, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Ikastolen Elkarteak— Partaide IEP, Euskal Herriko Unibertsitatea eta, azkenik, Internet eta komunikazioaren arlotik, Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea, Internetikak, Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniariei Elkarteak eta Euskadiko Informatikako Ingeniariei Elkargo Ofiziala izan ziren elkarteak sortu zutenak.

## ICANNEN BILERA SEULEN

"PuntuEus Elkarteak, Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatea [ EEKK, hemendik aurrera ] ordezkatzeko helburuarekin jaino zen. Bera izango da ICANNen aurrean, .EUS domeinua eskatuko duena eta, ordezkaritza lan hori burutuko duenez, garrantzitsua bezain ezinbestekoa da PuntuEus Elkarteak EEKK modu esanguratsuan ordezkatzeko, bai kuantitatiboki eta baita kualitatiboki ere. PuntuEus Elkarteak 11 kiderekin sortu zen. Aurtengo ekainean 30 kideko elkarteak bilakatu da, eta zabalte prozesuan jarraitzen dugu", esan zigun Iratxe Esnaolak, PuntuEus elkartearen koodinatzaileak. Gu bere bila hasi ginenean Seulen zegoen, hain zuzen ere ICANNen batzar batean.

“Urtean hiru bilera orokor egiten ditu erakunde honek, eta hau hirugarrena da [http://sel.icann.org/]. Bileran hauetan bere barne egituretan hartutako erabakien berri eman, politikak zehaztu eta nazioarteko komunitatearen iritzia jasotzen dute. Hori da .EUS bertan egotearen arrazoi eta helburua: guztiaren berri izan, eta gure asmo zein iritziak plazaratzea; hau da, prozesu guztian zehar parte hartzea. ICANN irabazi asmorik gabeko nazioarteko erakunde da, eta ibilera horiek kontinentez kontinente aldatuz egiten ditu. Erakunde hau da IP helbideak esleitzeaz eta domeinu-izenen sistema kudeatzeaz arduratzen dena, eta erakunde horri aurkeztu behar zaio hain zuten .Eus domeinuaren eskaria”, jarraitu zuen Iratxe Esnaolak.

Euskara oso eremu txikiko hizkuntza izanik ere, presentzia dezentea du Interneten. Euskararen ezagutza eta erabilera-maila oinarri hartuta, hizkuntza guztien artean 38. postuan kokatzen dela esaten da. Euskarak Interneten duen presentziari, egungo existentziari alegia, izena jartzea da .eus domeinuaren helburua. Eremu urriko hizkuntza izanik ere (hiru milioi herritar biltzen ditu eremuak), ia 800.000 hitzun dituen hizkuntza da euskara, eta horiei 200 euskal-etxe gehitu behar zaizkie diasporan. Horrek are premiazkoagoa bihurtzen du domeinu propio bat edukitzea.

Euskal blogosferak, euskarazko Wikipediak, euskarazko on-line zerbitzuek eta software librean oinarritutako sistema-eragile zein

tresnen euskaratzeak, IKT eta Interneteko euskararen eta euskal kulturaren presentzia areagotu egiten dute.

#### KATALANAK AITZINDARI

Duela lau urte sortu zen hizkuntza eta kulturak Interneten ikusgarri bilakatzeko lehen domeinua: .CAT, Hizkuntza eta Kultura Katalanaren espazio birtuala. Bidea, beraz, haiek ireki zuten. “Era askotako domeinuak daude. Batzuk estatuari dagozkio eta beste batzuk orokorrak dira. Hauen artean batzuk historikoak dira, negozioetarako erabiltzen dira besteak (.biz, esaterako) edo profesionalentzakoak (.pro). Badira, ordea, komunitate batek babesten dituenak. Horietako bat da .CAT, eta horrelakoa izango da gurea ere”, esan zigun Xabier Arrietak.

Iratxe Esnaolak, bestalde, katalanek beren domeinua nola lortu zuten agertu zigun. “Hiru eskakizun bete behar izan zituzten: komunitatearen babesa erakutsi [komunitatearentzat eskatu zutelako], bidegarritasun ekonomikoaren plan bat egin [irabazi-asmorik gabeko proiektua izan arren, dirua behar delako] eta bideragarritasun teknikorako beste bat [domeinuen erregistroak eta horietatik eratorritako arlo tekniko osoa]. Hiru eskakizun horiek dokumentu batean txertatu eta ICANNek TLDak eskatzeko aukera ireki zuenean, dokumentua helarazi egin zieten, ebaluazioa ordaintzeko diru kopuru batekin. Ebaluatua eta onartua izan zen, eta egun,

izateko ez dago atxikimendu kopuru minimorik. Atxikimenduak EEKKren babesa adierazteko modu bat dira. .EUS proiektuak sei hilabetetan 25.000 atxikimendu inguru bildu dituen arren, ahalik eta gehien lortu behar ditugu. Bestalde, .CAT-en adibidean aipatu bezala, EEKKren babesa, bideragarritasun ekonomikoaren plana eta bideragarritasun teknikoaren plana egin behar ditugu. Horiek dokumentu batean bildu eta ebaluazio-kostea ordaindu beharko dugu. Kontua da, dokumentu horrek galdera zehatz batzuk biltzen dituela eta, galdera horiek erantzunez hiru arlo nagusi horiek landuko direla badakigun arren, egun ez dira behin betiko galderak ezagutzen. Alegia, ICANN, TLDak eskatzeko hurrengo aukera irekitzeko, dokumentu horren eta aplikatuko dituen politiken definizioan dago eta behin betiko dokumentua kaleratu arte, ez dugu .EUS domeinua eskatzeko aukerarik izango. Beraz, gutxi gorabeherako baldintzak ezagutzen



ARETO NAGUSIKO KONFERENTZIA-BILERA BAT.

ditugun arren, oraindik ez dakigu behin betiko baldintzak zeintzuk izango diren”, jarraitu zuen Iratxe Esnaolak.

Atximenduak emateko webgune bat zabaldu zuen PuntuEus elkarteak. Hor eman daitezke atxikimenduak, baina aurki egingo den Durangoko Azokan ere egongo dira elkartekoak. “Aurrera begira, orain arte bezala, eta .EUS domeinua eskatu bitartean, mezua zabaltzen eta mezua zabaltzeko laguntza eskatzen jarraitu behar dugu, ahalik eta gehien lortzeko. Zabaltzea da egitekoa, bide ezberdinak erabiliz”, esan zuen Iratxe Esnaolak.

Xabier Arrietak ere sentsibilizazio kanpainen garrantzia nabarmendu zuen. “Ikastolak PuntuEus elkartearen bazkide gara sorreratik beretik eta .EUS proiektuaren alde jarraituko dugu lanean, langileak, ikasle eta gurasoak atxikimendua ematera gonbidatuz eta PuntuEus Elkarterako kide berriak lortuz”, esan zuen.

“PuntuEUS Elkartea, Euskararen eta Euskal Kulturaren komunitatea EEKK ordezkatzeko helburuarekin jaio zen. Bera izango da ICANNen aurrean, .EUS domeinua eskatuko duena.”



ROD BECKSTROM ICANNEN CEO/LEHENDAKARIA ETA PETER DENGATE THRUSH ICANNEN BOARD OF DIRECTORS-EGO LEHENDAKARIA.

35.000 erregistroekin, hizkuntza eta kultura katalanaren sustapenerako tresna eraginkorra bilakatu da Interneten”, esan zuen.

PuntuEus elkarteak ere ari da dagoeneko atxikimenduak biltzen. “Eskaria aurkeztu ahal

EUS



eus

# IRATXE ESNAOLA

PuntuEUS Elkartearen koordinatzailea

“**.EUS domeinua datorren urtean eskatzea espero dugu**”

**Noizko aurreikusten duzue .EUS domeinuaren eskabidea egitea?** Orain arte, 2010eko lehen hiruhilabetea eskatu ahal izango genuela zioen ICANNek. Seul-eko bilera, beste atzerapen baten berri eman dute eta ez dute datarik jarri nahi izan. Beraz, aurrez ere ziur ez genekien arren, printzipioz,

2010eko ekainera arte, gutxienez, TLD berriak eskatzeko aukerarik ez dela izango aurreikusten dugu. Datak ez daude gure esku, tamalez.

**Eremu urriko zenbait hizkuntza eta kultura dabilta gauza beraren atzetik. Zeren da haien egoera?**

.EUS-ez gain, .gal [galiziera, [www.puntogal.org](http://www.puntogal.org)], .cym [galesa edo kymbruera, [www.dotcym.org](http://www.dotcym.org)], .bzh [bretoiera,

[www.pointbzh.com](http://www.pointbzh.com)] eta .scot [eskoziera, [www.dot-scot.org](http://www.dot-scot.org)] ari dira hizkuntza eta kulturen TLDen bila. Hizkuntza eta kultura komunitate bakoitzak bere ezaugarri propioak dituen heinean, TLDaren bilako bidean ere, egoera ezberdinak eman dira eta emango dira. Halere, guztiok indartsu eta gogotsu aurrera jarraitzen dugu eta modu oso koordinatuan egiten dugu lan, .CAT-ekin batera.

**Domeinuaren finantziazioa eta bideragarritasun plana aipatu dituzu. Nolatan egiten da bideragarri? Zer odaintzen da?**

Bideragarritasun ekonomikoaren plan bat egitea ezinbestekoa da, behin .EUS domeinua lortuta, martxan jarri eta bizirik mantendu behar delako. Ez da gure nahia bakarrik, ICANNen esijentzia bat da. Beraz, ezinbestekoa da erregistratuko diren domeinu

kopuruaren estimazio bat egitea, hori teknikoki aurrera eramateak suposatuko dituen gastuak eta diru-sarrerak kalkulatzeko eta horren araberako prezioak ezartzeko. .EUS proiektua irabazi-asmorik gabekoa da, baina ekonomikoki bideragarria izan behar du, .EUS domeinua bizirik mantendu nahi badugu. •

## FALTA MENOS PARA LA SOLICITUD DEL DOMINIO .EUS

La asociación PuntuEus lleva dos años trabajando para lograr las condiciones que permitan la solicitud de un dominio propio para el euskara y la cultura vasca, tal como lo consiguieron los catalanes hace tres años. Las nuevas tecnologías se han convertido en instrumentos omnipresentes en nuestras vidas y la utilización de un dominio propio permitiría la visibilización de nuestra lengua y cultura a nivel mundial.

Xabier Arrieta, uno de los representantes de Ikastolen Elkartea en la asociación, así como Iratxe Esnaola, coordinadora de la misma, nos hablan de los planes más inmediatos para que el próximo año puedan cursar la solicitud a ICANN, el organismo que gestiona los permisos de los dominios. Iratxe Esnaola se encontraba precisamente en una reunión de dicho organismo en Seúl, desde donde contestó a nuestras preguntas.

## DERNIÈRE LIGNE DROITE POUR LE DOMAINE .EUS

L'association PuntuEus œuvre depuis deux ans à monter un dossier de demande de domaine internet propre à la langue et à la culture basques (les catalans ont obtenu le leur il y a trois ans). Les nouvelles technologies étant devenues inévitables de nos jours, l'utilisation d'un domaine propre permettrait une meilleure visibilité de notre langue et de notre culture au niveau mondial. Xabier Arrieta, l'un

des représentants de Ikastolen Elkartea au sein de l'association, et Iratxe Esnaola, coordinatrice du projet, font un bilan du travail effectué et évoquent les prochaines étapes qui aboutiront à la présentation du projet à l'organisme ICANN, organisme chargé de délivrer les domaines. Iratxe Esnaola s'est récemment rendue à une réunion de cet organisme à Séoul. Elle répond à nos questions.

# Zatoz zientziaren aurpegi alaiaren bila!

gizarte ekintza

hezkuntza



## ETORTZEN BAZARA EZ DUZU ALDE EGIN NAHI IZANGO!

- 170 esperimentu interaktibo
- Planetarium Digitala
- Planetarium Txikia
- Exploratoriumeko Simulagailuak: Errusiar Mendia eta Tranbia
- Animazio ekintzak eta tailorrak, adin guztietako jendeari zuzenduta
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunca, ingurune aparta,...



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Zatoz Zientziaren  
kutxaGunera**

**Zientziaren kutxaGunea**  
Mikeletegia Pasealekua, 43-45 – 20009 Donostia  
Tlf: 943 012 478. [www.miramon.org](http://www.miramon.org)  
[kutxaespacio@kutxagunea.org](mailto:kutxaespacio@kutxagunea.org)

zer nahi duzu bihar?